

ETXANIZ'TAR NEMESIO

Zugatz bakanen antzeko zara
euskal baratzen aundia,
izar artean izar bakana
Euskalerriko argia;
barruko miñez eta arduraz
ikusiz Euskalerria,
zer egin leike seme on batek
maite ba-dau bere-erria!!!

Argiz argitu, suaz berotu
nai zenduan Aberria,
iltzear egon euzko endari
ixuriz arnas barria;
zure jarduna arlo orretan,
egiz, zan bildurgarria,
ezpataz baiño indartsuago
sartzen zenduan egia.

Euskal etsaiak esnatu ziran
euren gurari baltzetan,
Euskalerria ezin ikusi
beren bidezko bidetan;
euren erria maitatze arren,
zenbat lagun espexetan,
ankerkeria, an, agertzen zan
zigor eta zaurietan.

Baiña zuk apaiz eredugarri,
negar zotiña entzunik,
iñoren mina artu zenduan
anai errukiz beterik;
igarle antzo jokatu zendun
gobernatzailliei deiturik,
zuzentasunez ibil zeitezen
kristau legez jokaturik.

Epai eguna etorri jatzun
on egiñaren ordaintzan,
berreun abade, indar ederra,
zure lagun batu giñan;
egun aretan, arriak dardar
egozen auzitegian,
laño baltzezko ordu aretan
egiak zaindu zinduzan.

PAULIN

ARGINABARREZKO SEMEAK

Atzoko, gaurko ta bai biarko
arginabarretan jaioko ziran
ustekizunez,
semeak egin neutsozan gabari,
emen ta, bai an...
berein eskuzko alor alorbideetan
bear izan daitezken gogai, ukubil,
abesti, poema bat,
emen ta, bai an...

Eztakit denporarik izango dodan
nik geien nai dodana egiteko:
euskera eder, gurea, betiraundu,
irribarreari irribarrez erantzun,
batzuen ugaritasuna banandu,

geientsuenen miseria lurperatu,
esku guztiak laztandu,
denporeaz aztu,
aizeari biotza emon,
egoak zabaldu,
gogoa biziratu...
Baiña ezin dot ukatu
ba-dodala denporea
dana egiteko,
al dodan dana
urkoratzeko.

MUNIATEGI-TAR SABIN

EGUTEGIA

Egutegia, orririk orri jausten doan
aterrik gabeko zenbakien euria.
Geldi-geldi, tantorik tantoko jarioan
bete daroasku gure ozinen neurria.

Tantai zarkote bat iduri orbel aroan,
adarretan —odol igar— neguen zauria.
Malko eta laino aldi egunerokoan
lauso daroasku goizen urre ixuria.

Ba yoako azken orbela ixil ixilik
—dinbilidanbalako oroitzapenen egoa—
zugazti zaarreko aize otzek bilbilik.

Nik nai neuke izan Oyan Aundiko pagoa
orri barri berdeak adarretan zintzilik
Basajauna agurtzen maite-dardar betikoa.

A. BIDAGUREN